



Ekonomiarako Sarrera II: Makroekonomiaren Oinarriak

1. GAIA

(6. Gaia K&W)

Makroekonomia: Ikuspegi orokorra

Gai honetan ikasiko duzuna :

- @ Makroekonomiaren ikuspegi bat, ekonomiaren ikerketa osotasun baten, eta zer diferentzia duen mikroekonomiarekiko.
- @ **Ziklo ekonomikoen** garrantzia, eta zikloen alde txarrak gutxitzeko politika ekonomikoak egiten duen lana.
- @ Zer den **epe luzeko hazkundera** eta nola zehazten duen herrialdeetako bizi kalitatea
- @ **Inflazio** eta **deflazioaren** esanahia eta zergatik nahiago den **prezioen egonkortasuna**
- @ Makroekonomiaren berezitasuna **ekonomia irekian**, hau da, atzerriarekin ondasun, zerbitzuak eta aktiboak salerosten dituen ekonomia.

Makroekonomia vs. Mikroekonomia

Makroekonomiaren ahalmen eta gaitasunak ulertzeko, arretan handiz behatu behar dira mikroekonomia eta makroekonomiaren arteko desberdintasunak

| MIKROECONOMIAREN ARAZOAK | MAKROECONOMIAREN ARAZOAK |
|---|--|
| Ekonomia ikasketak hasi edo lanera joan? | Zenbat jende dago lanean ekonomia osoan? |
| Nola erabakitzen du banku batek lizentziatu bateri ordainduko dion soldata? | Nola erabakitzen da langileen soldata maila orokorra urte jakin baten? |

Makroekonomia vs. Mikroekonomia

| MIKROECONOMIAREN ARAZOAK | MAKROECONOMIAREN ARAZOAK |
|--|---|
| Zerk erabakitzen du eskola edo unibertsitate eskaintzaren kostua kurtso berri baten? | Zerk erabakitzen du ekonomia bateko prezio maila orokorra? |
| Nolako politika erabili beharko zuen gobernuak ikasle txiroak ikastetxeetara errazago joateko? | Nolako politika erabili beharko zuen gobernuak enplegu osoa eta hazkundera bultzatzeko? |
| Zerk baldintzatzen du banketxe batek Shangaien bulego berri bat irekitzeko erabakia? | Zerk baldintzatzen du ondasun, zerbitzu eta finantza aktiboen merkataritza, USA eta munduaren artean? |

Makroekonomia vs. Mikroekonomia

➤ **Mikroekonomiak** hiritarrek eta enpresek erabakiak nola hartzen dituzten behatzen du, eta erabaki horiek ekar ditzakeen ondorioak ere bai.

Ad.: Zenbateko kostua duen unibertsitate (edo eskola) kurtso berri baten eskaintzak — irakaslearen soldata, ikasgelaren erosotasunak, klaseko materialak, etab.

Kostua zehaztuta, zuzendaritza taldeak kurtso hori aurrera eramatea edo ez eramatea erabakitzen du, galera edo irabazien arabera.

➤ **Makroekonomiak** ekonomiaren portaera agregatuak aztertzen ditu (adibide, ekonomia baten hiritar eta enpresek sortzen dituzten bere arteko harremanak nola batzen dira ekonomia osoan emaitza konkretu bat lortzeko)

Ad.: Ekonomiako prezio maila orokorra eta ez ordea ondasun edo zerbitzu bakar baten prezioa.


Makroekonomiaren eta Mikroekonomiaren arteko Lau Desberdintasun Nagusiak:

1. Makroekonomia osoaren portaerak, bakarkako akzio eta merkatuko emaitzen *gehiketa baino gehiago* ematen du.
2. Makroekonomian **gobernuaren esku hartze** jarraiaren ikuspegia azaltzen da; epe laburreko fluktuazioen kudeaketa egiten du gobernuak, eta krisialdiari aurre egiteko tresna bereziak erabiltzen ditu:
 - Moneta politika
 - Politika fiskala
3. Makroekonomiaren ardura **epe luzeko hazkundera** ikertzea da: Zeintzuk dira epe luzeko hazkundera bultzatzen duten faktoreak? Eta ba al dago epe luzeko hazkunderaren gain eragin posibitua duen gobernu politikarik?
4. Politika eta teoriaren inplementazioa **ekonomiako aldagai agregatuetan** zentratzen da.


<Atzeraldi Handia>

Atzeraldi (Depresio) handiak, makroekonomiari birplanteaketa eta modernizazioa ekarri zion. Ondoren, gaur egungo makroekonomiaren oinarriak finkatu ziren.

(A) Langabezia-tasa




(B) Output agregatua



Merkatuaren Zikloa

- **Merkatuaren Zikloa** krisi eta gorakada egoeren arteko epe laburreko txandaketa da.
- **Atzeraldia** krisi sakon eta iraunkorreko epe bat da.
- **Rezesioa** krisi ekonomiakoen epea da, output eta enplegua beherantz doazen gunea da.
- **Hedaldia**, berreskurapena ere sarritan deitzen zaio. Une honetan output eta enplegua hazten joaten dira.

Langabeziaren tasa eta atzeraldiak 1948tik 2004ra



Ziklo Ekonomikoa

Zer gertatzen da ziklo ekonomikoaren baitan, eta zer egin daiteke horren inguruan?

- Atzeraldi eta aurreraldien eraginak langabezia;
- Eraginak output agregatuetan; eta
- Gobernu politikaren aukerak irekitzen dira.

Enplegua eta langabezia


- ***Etsitako Langileak***: langabezian dauden langileak, eta lanerako sasoi betean egon arren, euren burua aukera gabe eta etsita aurkitzen dutenak lan merkatuan.
- ***Azpienplegua***: krisi aldietan soldata murriztuekin lanean dauden langileak osatzen dute. Murriztapen hauek datoz, bai ordu kopuru txikiagoa lan egiten behartuta daudelako, bai soldata maila jeitsi egin direlako edo biak batera.
- ***Langabezi tasa***: zatiketa baten bitartez adierazten da:
Langabezi tasa = $[\text{Langabetuak} / \text{Populazio Aktiboa}] * 100$
= $[\text{Langabetuak} / (\text{Langabetuak} + \text{Landunak})] * 100$

-Azpienplegua ez dago estadistiketan sartuta.

Atzeraldi eta aurreraldiek langabezian eta output agregatuan dituzten eraginak:

Orokorrean, *langabezi tasa* atzeraldietan handitu egiten da eta gutxitu aurreraldietan. *Output agregatu*en kontrako zentzuan aldatuz doa, hau atzeraldietan jaitsi eta aurreraldietan igotzen da.


Output Agregatuaren Hazkundera, 1948–2004



Barne Produktu Erreala output agregatuaren neurri bat da, ekonomiaren outputa bere osotasunean adierazten du.

Output Agregatuaren Hazkundera, 1948-2004

BPG erreala (2000
bilioi dolarretan)




Ziklo Ekonomikoaren kudeaketa

Egonkortasun politika deitzen zaie atzerapenaren eraginak gutxitzeko politika ekonomikoaren aldetik egindako ahalegineri.

- *Moneta Politika* interes-tasak edo moneta kantitatearen aldaketaren bidez egiten den egonkortasun politikari deitzen zaio horrela.
- *Politika Fiskala* da bigarren egonkortasun politika, eragina lortzeko, zerga tasak aldatzen ditu, edo baita gastu publikoa ere (edo biak alde berean).

EKONOMIA MUGIMENDUAN: Ziklo ekonomikoa hezitzea/kontrolatzea lortu al da?

Egonkortasun gehiago ekarri al du makroekonomiaren jakintza aurrerapenak ekonomiara? → Bai, baina zikloa ez dago era bat otzandua (domestikotua)




Epe Luzeko Hazkunde Ekonomikoa

Epe luzeko Hazkunde Ekonomikoa, ekonomiaren hazkunde gorakor sustengatu eta iraunkorra adierazten du, eta hamarkada batzuetan zehar pertsonako output agregatuaren igoera azaltzen du.

Herrialde batek epe luzeko Hazkundearekin lortuko du bertako herritarren bizi-maila gorantz joatea. Beraz, makroekonomiaren zeregin garrantzitsuenetakoa, epe luzeko Hazkundearen iturria aztertzea da.


EEBBren BPGren hazkunde errealak pertsonako 1900-2004



Prezio Maila Agregatua

- Neurri **nominala** beste garaietan egon diren prezio aldaketen doikuntzarik jasan ez duen neurria da.
- Neurri **erreala** denboran zehar prezio aldaketarekiko egokitua izan den neurria da.
- **Prezio agregatuaren maila** ekonomia batean prezioen maila orokorra da.


Kontsumo Prezio Indizea 1913 eta 2004 bitartean



Prezioen egonkortasuna: Inflazioa eta Deflazioa

- Prezio agregatuen gorakada da **inflazioa**.
- Prezio agregatuen beherakada da **deflazioa**.
- **Inflazio tasa** urteko prezio agregatuen mailako aldaketa da %tan.
- Ekonomia batek **Prezioen Egonkortasuna** duela esaten da, prezio maila oso poliki aldatzen denean denboran zehar.

Inflazioa eta Deflazioa 1929tik aurrera



Ekonomia Irekia

- **Ekonomia itxia** ondasun, zerbitzu eta kapitala atzerriko merkatuetatik kanpo dituen ekonomia da.

- **Ekonomia irekiaren makroekonomia:** makroekonomiaren atal honen azterketa herrialdea eta atzerrian artean ematen den ondasun, zerbitzu eta kapitalen merkataritzaren eragina aztertzen saitzen da.

Ekonomia irekia

- **Ganbio-tasa** da makroekonomian garrantzi handia duen aldagaia ekonomia irekian, eta moneta baten prezioa adierazten du beste moneta batekin konparatuz. Adibide dolarraren prezioa euroetan.
 - Ganbio-tasak herrialdeko prezioen mailan eragina izan dezake.
 - Output agregatuan ere eragina izan dezake **merkatal balantzaren bitartez**. Argi dago bere eragina herrialdeak atzerrira saltzen dituen ondasun eta zerbitzuen balioa eta atzerritik erosten dituen ondasun eta zerbitzuen balioarekin lotzen dela ganbio tasaren garrantzia.

- Ganbio tasa aldatzen denean herrialde batek diru kopuru berdinarekin atzerriko ondasun eta zerbitzuen erosteko ahalmena handitu edo murriztu egin al ditu.
- Ekonomisten lanean oso inportantea da baita ere nazioartean ematen diren **kapital fluxuak**, eta garrantzizkoak dira finantza kapitalen mugimenduak herrialde ezberdinen artean

Dolarra eta euroaren arteko ganbio-tasen mugimenduak

